

1.- SARIA: 500 € - KARMELE URIBESALGO ALZOLA (Bergara – 23 urte)

Kaixo, bihotza:

Irratia itzaltzeko eskatu dizut, baita telebista ere. Etxea zarataz betetzen dute, baina besterik ez. Aparatu horietatik ateratzen diren ahotsak berriketan aritzen dira, baina ezin dute entzun nik esateko daukadana. Magalean dudak katuari, ordea, kilimak egiten dizkiot, eta laztanekin erantzuten dit. Hala ere, esan beharra daukat konpainia egiten didan arren, ez duela bular inguruan sentitzen dudak presio hau askatzerik lortzen.

Mesanotxean daukadan egutegia hartu, eta otsailaren 13a ezabatu dut. Hilak hamalau ditu gaur, beraz, eta San Balentin eguna da. Horrek esan nahi du urtebete daroadala etxetik atera gabe. Pneumonia batek ahuldu egin ninduen, eta kalera ezin irten gelditu nintzen. Orditik, terrazara sartzen diren eguzki printzek besterik ez naute berotu, eta leku bereko loreak astintzen dituen haizeak bakarrik mugitu du nire ilea. Gure atarian ez daukagu igogailurik, eta etxeko lanak egitera zein ni zaintzera zu etortzen zara, Belinda. Baina hori baino askoz gehiago egiten duzu zuk. Kaleko berriak eta jendearen goraintziak ekartzen dizkidazu egunero. Enbaxadore lanak egiten dizkidazu, finean. Erosketak ere zuk egiten dizkidazu, eta ondo dakizu zein diren niri gehien gustatzen zaizkidan jogurtak. Horiek topatu ezean, kapaz zara herriko denda guztietatik pasatu eta aurkitu arte etxera ez itzultzeko, merienda otordurik garrantzitsuena dela esaten baituzu.

Familia eta lagunak Ekuadorren utzita, duela hogeitun urte etorri zinen Euskal Herrira. Hemen gustura zaudela diozu, eta espero dut urte hauetan guztietan ikasi duzun euskararekin gutun hau ulertzeko gai izatea. Bestela itzuliko dizut, ez kezkatu. Nirekin pasatako denboraren ordaina hileroko bidaltzen diozu familiari. Gehiago pentsatzen duzu beraien ongizatean zeurean baino. Halakoa zara, Belinda.

Badakizu betidanik gustatu izan zaidala literatura, eta idazle izatearekin amestu dudala txikitatik, baina izan dugun bizitza estiloarekin ezinezkoa da hori. Azken urteetan istoriotxoak idatzi ditudan arren, jada ez nago horrelakoetarako, eta orain gutunak idazten dizkiet maite ditudan pertsoneri.

Lagun zein senitarteko horiek nahiko nukeena baino gutxiagotan etortzen dira bisitan. Denek dituzte zeregin ugari, eta apenas izaten dute tarterik nirekin pasatzeko. 86 urte ditut, eta azkenaldian egunkarian besterik ez ditut ikusten nire ezagunak; karratu baten barruan, eta gurutze bat alboan dutela.

“Neska zahar” gelditu nintzela entzuten egin naiz “andra zahar”, eta ez dakizu nolako amorrua eman izan didan horrelakoak aguantatu beharrak. Sarri pentsatu ohi dut seme-alabak izanez gero, ez nintzatekeela hain bakarrik sentituko, baina lxabelek, alboko atean bizi denak, badu familia, eta, hala ere, konpainia gutxi izaten du. Bartzelonan bizi da bere seme Manu. Lana dela eta, alde batetik bestera ibiltzen da Miren; gaur Miamin eta bihar Pekinen. Josu herrian bizi da, baina bikiak izan zituenetik denborarik gabe dabilela dio.

Bitartean hor izaten da Ixabel, telefonoa alboan duela, deiren bat noiz iritsiko zain.

Asteazkenetako kafea ezinbestekoa zaigu bioi, eta ez dakizu zein gustura egoten garen gurekin etortzen zarenean, Belinda. Sukaldeko mahai inguruan bildu, eta nork bere kontuak azaltzen ditu. Idatzi ez ditut idatziko, baina bizitako pasarteak kontatzeko grina ez dut galdu oraindik. Zuk ere izaten duzu zer kontatu, eta izugarri maite dugu gaztaroan zure herrialdean egiten zenituenak entzutea. Horrez gain, igandetan zineman ikusitako pelikulak hasieratik amaierara azaltzen dizkiguzu, narratzaile profesional baten gisan. Lagunekin batzen zarenean egiten dituzunak ere arreta handiz jarraitzen ditugu. Jakin ezazu gutun hau idazten ari naizen bitartean pasa den astean Donostiatik ekarri zenidan zapia dudala lepoan. Zure denbora librean ere oroitzen zara nitaz, eta berdina pasatzen zait niri zurekin.

Ixabelek ere sentitzen du presioa bularraldean. Berak ere pizten ditu irratia edo telebista konpainia bila, baina aurrekoan kontatu zidanez, berari ere ez zaio nahikoa iruditzen. Latza da bakardadea, eta are gehiago bakarrik sentitzea.

Hala ere, aitortu beharra daukat zuk alaitu duzula nolabait etxaldea. Arropak eskegitzen dituzun bitartean kantatzen duzun doinua entzutea besterik ez dut behar aulkitik altxatzeko gogoia pizteko. Ahal banu, besotik helduko nizuke, eta dantza egitera gonbidatu. Eskerrak zu nirekin zauden, Belinda. Halako batean nitaz aspertuko zara, nahiz eta behin eta berriz errepikatzen didazun ezinezkoa dela halakorik gertatzea.

Ai... Letra hauek idazten ari naizen bitartean oroitu naiz horrelako gutunak idazten nituela nerabezaroan. Alboko baserriko mutil gazteari atarian uzten nizkion, baina ez nuen nire izenik jartzen; sekretu zalea izan naiz beti. Pentsatzen nuen ez nuela berriz amodiozko gutunik idatziko, baina konturatu naiz karta horiek ez direla soilik bikoteen arteko mezuak; izenak berak dioen bezala amodioa erakusteko gutunak dira, maite dugun jendeari bidali edo ematekoak. Eta bai, Belinda, zu ere maite zaitut.

Rosario